

D/16 19

**LATI**

**IZKUNTZAREN**

**JOSKERA**

**ORIXE**

**ORMAETXEA'tar NIKOLA**

Depósito Legal: BI-1786-1966

Gráficas ELLACURIA - Buenos Aires, 13 - Bilbao-1

# LATI - IZKUNTZAREN JOSKERA

S. Anton'go Katekesia  
Euskal - argitalpenak.

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. *Phedro'ren Alegiak I*
2. *Martial'en Ziri-Bertsoak I*
3. *Phedro'ren Alegiak II*
4. *Fatima'ko Ama Biriña ta Umeak*
5. *Euskal Iztegi Laburra (A)*
6. *Esopo'ren Alegiak I (irarten)*
7. *Agustin Deunaren Eskutitzak I*
8. *Gurutz-Bidea*
9. *Phedro'ren Alegiak III*
10. *Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)*
11. *Perrault'en Ipuiñak (2-garren argitalpena irarteko)*
12. *Batikano II Batzar-Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)*
13. *Apuntes de Vasconce (Segundo Curso)*
14. *Lope de Vega - Bakar Autuak*
15. *Liturji - Goratzarreak*
16. *Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)*
17. *Maitale Galdua (olerkiak)*
18. *Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)*

Idazlan eder au ta argazkiak, Begoña'ko Abade-etxeko Oartzabal'dar Martin apaizak emon dauskuz.

Bidai-estalkian auxe dago idatzita:

Aurrean: Monsieur Martin de Oartzabal.

Presbytère

Cagnotte

(Landes)

Azpean: Exp. N. Ormaetchea.

Hôtel Noblia. Bidarray (B. P.)

Ikurratza olan dakar: 19-6-47.

Azkenean Orixe'k erabillitako itz berrien edo berri antzekoen lerrokada bat ipiñi dot.

Erretolaza'zar Joseba Andoni'k eta Gallastegi'tar Kauldi'k, S. Anton'go apaizak, aintzindu dabe argitaratzeko dirua. Orrei eskerrak!

**Etxebarria'tar Juan Anjel**

Idaztia irarten dagoala, Oartzabal jaunaren ilbarria jaso dogu: Goian bego!



Orixe, Ataun'go Bonipazio Aita, Olabide ta Aita Donosti.

*(Toulouse'ko Buruñurdunen Lekaide - etxean, 1938-garren urtean)*

**LATI - IZKUNTZAREN JOSKERA**

- 1) ITZEN TOKIA.
- 2) ITZEN AIDEGOIA.
- 3) ITZEN UZTARPIDEA.

Esankizunen uztarpidea.

## LATI - ITZEN JOSKERA

### VOCUM LATINARUM SYNTAXIS

Syntaxis esateko joskera esan digute, ta oraingoz ar zagun, egoki esana ez ba'da ere. Syntaxis orrek iru atal ditu: 1) itzen tokia; 2) itzen aidegoa; 3) itzen elkarpidea.

### ITZEN TOKIA

1. Izketa jatorrean, itzen tokia edo elkar-urrena galde erantzuneri dagokie. Edozein esankizun (proposición) erantzuna antzo jo dezakegu, ta bertan itzak galderari dagozkion toki berean, urrenez urren ezarri bear ditugu. Ortaz, itz-tokiaren oiñarria galdekizuna da.

2. ARAU NAGUSIA: "Galdekizuna (lo inquirido) adi-itza bera ba'ledi, bera da aurren-tokian; osterantzeko galdekizunak adi-itzaren aurretik ipifi bear ditugu".

3. Ba-da ala ez? = Estne an non?

a) Est = ba-da.

Bai al da Jainkorik? = Estne Deus?

b) Ba-da Jainkoa; Jainkoa ba-da = Est Deus.

Latiñak ez du bigarren itz-urren ori.

4. Bai edo ez'ean ari generala (sí de afirmando aut negando ágimus), euskerak bitara dio **ba** orren bitartez, adi-itza **da** baita, ta bietan **ba** aurretik ipin-izea aski. Tokiari utsari gagozkiola, latiñak **Deus est** ezin erantzun galdera ortan, **quid est**'i erantzuna baita. Mintzaerari (acento'ari) gagozkiola, tartean kakotxa edo **coma** ipiñita, **Deus est** esan lezake; ba-ñan irakurtzen lan aundia genuke. Ortaz itzen toki au idatzi utsari gagozkiola aztertuko dugu.

5. Zer edo nolatan ari generala (de quid aut de quali, de atributivo), galde dezagun:

a) Quid est Caius?  
Vir est Caius.

a) Quis est vir?  
Caius est vir.

b) Caius quid est?  
Caius vir est.

b) Vir quis est?  
Vir Caius est.

a) Zer da Kai?  
Gizona da Kai.

a) Nor da gizona?  
Kai da gizona.

b) Kai, zer da?  
Kai, gizona da.

b) Gizona, nor da?  
Gizona Kai da.

6. Euskerak eta latiñak galderari dagokion itz-urrena duten bezela, prantsesak ez-egokia (inco-

hérent) du; geienez alde batera galdegin ta bestera erantzuten baitu. Españerak ere prantses aldera jotzen du.

Gure esankizun onek, gertakizun, burutakizun, biotz-eragin (hechos, ideas, afectos) batera daramatzi, aldiz aurrera (cronológicamente) beti toki jakiña emanaz. Gure mintzaerak, gertakizun, burutakizun, biotz-eragin, batean korapilotzen ditu, toki bera artuz. Gure itz-urrena, latiñarena ere agiz bai, galdeari dagokio erantzueran (cohérent avec la demande) da; izkuntza berriena, ostera, galdearekin gaitz-egokia (incohérent avec la demande).

7. Gaurko euskera itzegiñak eta lati-idazleen izkerak bi aldetxo ditu: a) oena billatuegia dala, asmatuegia ta jatorrez bestera aldatu egin zutela; baitakigu, esaterako, Kikeron'i amonak ez ziola ulertzen; b) gure itz-zati guziek **irautez** ta **indarrez** mintzaki berbera dutela; aienak, aldiz, batzuek luze, besteak labur; ortaz, belarrieri atsegin emateko, itza tokiz aldatu bearra arkitu zuten, gero dakuskegunez.

8. Itz-urrenaren azterketa zabalagotu dezagun.

a) Misistine litteras? = Gutuna bialdu al duzu?  
Bialdu al duzu gutuna?

Misi litteras = Bialdu dut gutuna.

b) Quid misisti? = Zer bialdu duzu?

Litteras misi = Gutuna bialdu dut.

- c) Litteras ad quem misisti?  
Karta nori egin diozu?  
Ad quem misisti litteras?  
Nori egin diozu karta?  
Litteras ad Antonium misi.  
Karta Andoni'ri egin diot.  
Ad Antonium litteras misi.  
Andoni'ri egin diot karta.

- d) Quando misisti litteras ad Antonium?  
Noiz igorri diozu karta Andoni'ri?  
Ad Antonium litteras quando misisti?  
Andoni'ri karta, noiz egin diozu?  
Litteras ad Antonium quando misisti?  
Karta Andoni'ri, noiz egin diozu?  
Heri misi litteras ad Antonium.  
Atzo bialdu nion karta Andoni'ri.  
Litteras ad Antonium heri misi.  
Karta Andoni'ri atzo bialdu nion.  
Ad Antonium litteras heri misi.  
Andoni'ri karta atzo egin nion.

Izkuntza berriek ez dezakete ainbestetara gauza bera esan; baña itz bat da beinere tokialdatzen ez dana: galdekizuna, beti adi-itzaren aurretik baitoa.

9. Adi-itza naiz galdekizun nagusia itz bakunez emanean, esan bezela bedi; bañan itz-mordoz emanean ere, galdekizunak bere tokia ar beza:

Heri (iam iam cubaturus) ad Antonium (qui est amicus meus) litteras misi.

Atzo (lotarakoan) (adiskide dudan) Andoni'ri karta egin nion.

10. Latiñaren ta euskeraren itz-joskera berdintua dala ikusteko, onako adibide au bedi:

"Dum Athenienses et Lacedaemonii maxima inter se contentione pugnarent, Pericles, in summo omnium timore, civium suorum animos relevase dicitur". = Atenar ta Lakedemon'darrak beren arteko burrukarrik gogorrena ari zutela, Periklesek, guzien bildurrik aundienean, bere erritarreri biotz eman omen zien."

Itzik itz eman dezagun euskera au latiñez:

"Athenienses et Lacedaemonii inter se contentione maxima dum pugnarent, Pericles, omnium in timore summo, suorum civium animos relevasse dicitur."

Latiñ ederra au ere. Galdekizun nagusia **noizkoa** da lenengo esankizunean; ortaz, adi-itzaren aurretik, **dum** pugnarent.

## 11. ONDORIOA.

Itzen joskeran, galdekizunak bakarrak du toki jaña, ots, adi-itzaren aurea. Adi-itza ez da beti azken-tokian ipintzen: bera galdekizun dalarik, bera aurrenik:

Procas, Rex albanorum, **duos filios habuit.** (T. L.)

**Duos filios habuit** Procas, Rex albanorum.

**Solus potitus est imperio** Romulus. (T. L.).



Imperio Romulus solus potitus est.  
Romulus imperio solus potitus est.  
In armis esse civitatem. (T. L.).  
Civitatem in armis esse.

### ITZEN AIDEGOIA (Concordantia)

I'go ta II'garren maillako adijabea (ni, zu, gu, zuek)

12. Latiñez ta euskeraz askotan bereiz ipiñi bearrik ez da, aditzaeran bertan (en la misma forma verbal) baitute ordezkoa: sum, es, = naiz, zara; habeo, habes = dut, duzu; habemus, habetis = dugu, duzute. Prantsesak beti nai ta nai ez ezarri bear ditu bereiz nor-izen oriek, izketan, beintzat ez baititu aditzaera oiek ongi bereizten. Españerak ere ez ditu beti bear; zenbait aldiz ordea, nai ta nai ezkoak ditu, a. b.: "comía, comería, cenaba" (yo, él).

Latiñak adijabea aditzaeraren azkenean ipiñi oi du beti; euskerak, -k, gabeko adi-itzetan aurrenean; -k dunetan, oraiñaldian ta geroaldian (du-t, duke-t) azkenean; beste iru noizaldietan aurrean (nun, nuke, nuken). Iñoiz tartean ere bai: duguke, dukegu ordez, ta abar.

### III'garren mailleko adijabea

13. Latiñak aditzaeran -t du III'garren mailleko adijabea; euskerak ez du batere. Irugarren mailleko

adijaberik ez da, Balmes'ek zionez. Sengler Desmarquets, en Gramatika'k ere orobat dio: "... de la troisième personne qui n'existe pas" (191). Gure da, bedi, Iedi, adikizun (objeto del verbo) dira. NI ta ZU ez dan oro, irugarren mailleko adijabe jo oi da, bañan ez du nor-izate jakiñik. Emagun Petiri, au. Petiri naiz, Petiri zara, Petiri da; au naiz, au zara, au da. Petiri ori lenengo ta bigarren mailleko ere gertatzen da: ez du berekiko nor-izaterik jakifirik. Lengo ua naiz, lengo ua zara, lengo ua da.

### I. ADIJABEA TA ADITZA

14. Adi-itx mugatuaren jabea lenengo buka-maillean ipiñi oi da. "Deus ubique est" = Jainkoa nonai dago. "Troia hic fuit" = Troia emen zan.

Izan-izenaz gañera, nor-izena, adi-itx mugagabea (infinitivum) ta esankizun osoa ere jabe izan ditezke: "Ipse est = bera da; "negare vanum est" = ukatzea alperrik da; "dulce et decorum est pro mori" = aberriagatik iltzea atsegin ta eder da.

Adijabe diran nor-orde biak (ni, zu) agiz isildu egin oi dira: "Civis romanus sum" = erriz erro-marra naiz; "frater mihi es" = anai zakit. Bi nor-orde oriek nabariazi nai ditugunean agertu egin oi ditugu: "Si tu et Tullia valetis, ego et suavissimus Cicero valemus" = Zu ta Tullia onik ba'zerate, ni ta Kikero atsegiña onik gera. Alare, iñoiz isildu ere bai. "Si vales bene est, valeo = onik ba'zaitu, ongi da, onik nauzu.

15. Adijabea ta adi-itza zenbatenean ta nor-izanean aidetzen dira: "Ipse dixit, nos credimus" = berak esan zun, guk sinetsi egin genun. Euskeraz bastera ere aidetu ditekete: ark esan, guk sinetsi egin **dugu**: "Nos diximus, ille vero egit" = guk esan, ark ordea egin.

lñoiz adijabea alboko batekin naiz adikizunarekin aidetzen dute latitarrak: "Non omnis error stultitia dicenda est" = edozer utsegin ez da zorakeri esatekoa. Berez: non omnis error stultitia dicendus est .

16. Adijabeak batez goitik ba'dira, adi-itza askoren einean jarri oi da. Mailla banakoak ba'dira, lenengoak bigarrenari, bigarrenak irugarrenari kentzen dio. "Ego et tu valemus" = ni ta zu onik gaude. X ta biok onik gaude.

lñoiz urbillengo adijabearekin gerta oi da aidego ori: Ez liburuak, ez eleak, ez jakiteak, ez dit onik egiten (ez didate ordez).

Adijabeak elkar-itx okin (cum, aut, vel, nec) elkarturik daudela, naiz baten einean naiz askorenean aidetu oi dira: "Si Socrates aut Antistenes diceret" = Sokrate'k naiz Antistene'k ba'lio. "Si Socrates aut Aristippus fecerunt" = Sokrate'k edo Aristip'ek egin ba-zuten.

## II. ADIKIZUNAREN AIDETZEA

17. Latiñez izenak gizakunde-emakundeko ta kundegabeko dira. Bakoitza bere izenkundekoarekin aidetu oi dute agiz; kundegabea edozein itzekin, bai ta adi-itzarekin ere. "Negare vanum est" = ukatzea alperrik da (gauza alperra da).

Zenbait aldiz erabateko izenarekin aidetzen da bere aidearekin egin ordez. "Turpitude peius est quam dolor" = lotsa miña bañon okerrago da (peior ordez).

lñoiz adijabea irugarren buka-maillean ipiñi oi dute, beste esaeratik esekita: "Leges quibus tabulis XII est nomen" = amabi legeena deritzen olak (guk bigarrenean). Berez: "Leges quibus tabulae XII nomen est" = amabi legeak deitu olak.

18. Kunde bereko zenbait izenek, adijabea zenbaiten einean dute (en el número plural): "Pater et filius aequae boni sunt" = aita- semeak berdin dira onak.

19. Kunde banako izenetan, adikizuna askoren maillean ipiñi oi dute kunderik aurrekoenean. Aurrekoena gizakiarena, urrengoa emaztekiarena. Euskerak ez du gizakundeko emakundeko izenik izenetan; bai adi-itzean: **to** = habe, vir; **no** = habe femina; **duk** = habes, vir; **dun** = habes, femina.

20. Zenbait izeni dagokien adijabea ondokoarekin aidetu oi dute agiz, edota kundegabearen mai-

Ilean: "Multorum odium ac molestia preferenda est"  
= Askoren gorrotoa ta nekea eramatekoa **da** (eramatekoak **dira** ordez). "Virtus et vitium contraria sunt" = Ontasuna ta gaiztakeria buruz-buru daude.

### III. IZENA TA IZEN-LAGUNA

21. Izenlaguna bere izenarekin kundez, zenbate-nez ta bukaeraz aidetu oi dute: "Deus sanctus" = Jaungoiko saildu; Jaungoikoa saildua.

22. Izenlaguna batekin baño izen geiagorekin elkartu ba'ledi, urbillenarekin aidetu oi dute: "Vir magna virtute et consilio" = Zintzotasun ta zurta-sun aundiko gizona.

Zer-gauza adierazteko izenlaguna kundegabeen einean jarri oi dute: "bonum" = on; **gauza** ona; "multa" = asko; **gauza** asko.

"Haes res" = au (**gauza au** ordez).

### IV. ELKARTZEKO IZENORDEA

(El pronombre relativo)

23. Elkarlagunarekin aidetu oi dute kundez ta zenbatenez, eta adi-itzak eskatzen dun buka-maillean ezarri oi dute: "Deus quem amo" = Maite dudan Jainkoa.

24. Elkartzeko izenordea bere lagunarekin nor-einekoa da: "Adsum qui feci" = ona emen egin dudana. Euskeraz obeki "ona emen egin duna".

25. Elkarlagunak zenbait diranean, elkartzekoa nagusienarekin naiz askoren einean, naiz kundegabeen, naiz urbillenarekin aidetu oi dute: "Pater et mater qui adsunt" = Emen dauden aita-amak. "Stultitia et temeritas quae sunt fugienda" = Aldegin bear diegun ergelkeria ta buru-iritzia; aldegittekoak diran...

26. Bi izenen tarteko elkartzailea iñoiz batarekin iñoiz bestearekin aidetu oi dute: "Urbs quae caput est" = Buru dan uria. "Thebae quod caput est" = Buru dan Tebas.

27. Elkartzaileak esankizun osoa aide ba du, kundegabe nai du: "Quod parentes docuerunt" = Gurasoek erakutsi zutena; gurasoek erakutsia. Zenbait aldiz izenak bere kundekoa erakarri oi **du**: "**Quae (quod** ordez) iracundia dicitur" = Aserrea deritzana. "Hic pietatis honos" = au on izanaren saria.

28. Oarra. Latiñak bereizia omen dula-ta or ari dira idazleak, **traiecta oratio** edo alderantzizko esankizuna adierazten. Euskerak berezkoa ta betikoa du: "Quam quisque norit artem in hac exerceat" = Bakoitzak dakin **lanbideari** bekio. "Romam quam dicunt urbem" = Erroma dioten **uria**.

## V. ERAUNTSIKO IZENEN AIDEGOA

### (Concordancia de los apuestos)

29. Beste baten alboan, adierazteko, dagon izena (izenlagun antzean ba'dago), buka-mailla berean ezarri oi dute: "Urbs Roma" = Erroma uria. "Accae, Laurentiae coniugi" = Aka'ri, Laurentia'ren ezkontideari. Oraingo euskal-idazleak maiz utsegiten dute ontan, euskeraz ere latifiz bezela baita.

## VI. BAKARRA ASKOREKIN AIDE

30. Izen bakarrak **zenbait** adierazten dunean, zenbaiten einean ezarri diteke: "Pars in fugam effusi sunt; pars caesi" = Batzu igesi zabaldu ziran; besteek zaurituta (gelditu). Euskeraz ere ba-dugu: zenbaitek uste du; zenbaitek uste **dute**.

## IV

### ITZEN UZTARPIDEA

#### ITZEK ITZEKIN

**Izan-izena.** (Bigarren maillekoa: **alter casus**)

31. Edozein izkuntzetan berdin dan uztarpideari ez diogu jaramon aundirik egingo, latifiñaz bereki omen diteneri baño.

"Inopiae ultimum" = bearraren azkena. "Quod fuit auri" = urrerik zana (ez urrearen zana). "Tem-

pus legendi (ad legendum) = irakurtzeko astia; irakurr-astia.

"Quid novi?" = Berririk ba? Ba da ezeren berri? Zer berri da?

"Puer egregiae indolis" = Ariurri oneko aurra (ez onaren).

Iñoiz seigarren maillean ere jarri oi dute: "Oculis glaucis Minerva" = Minerba begi-uridin, beturdin; 2) begi urdiñeko; 3) begi urdindun.

33. Izen-ixiltzerik agizkoenak: "Caecilia Metelli" = Metel'en Kaikilia. (Uxor Metelli = Metel'en emaztea). "Ad Iovis Statoris" (templum) = Jupiter Stator'enera. "Illud Solonis" (effatum) = Arako Solon'ena (Solon'en esana). Euskerak ere ba du izen isiltze ori.

#### Izenlaguna

"Avidus laudis" = izenaren gale (izen-gale). "Sui compos" = Bere jabe. "Nullius mihi noxae conscius sum" = Iñolako ogenik ez dut nigan eza gutzen; iñolako ogenen berri ez dut nigan; ogenen jabe ez naiz. "De caede reus" = Eriotzaz ogendun. Euskeraz obeki **caedis** eriotzaren baño.

34. "Patiens laboris" = lanean etsia; lanera jarria; lanari atxikia; lan-ikusia. Laphurdin ta Baxenabarren baita lanaren jasailea, lanaren jasaitea.

"Tempus edax rerum" = Astia gauzen jale, edota gauza-jale.

35. "Similis patris" = Aitaren antzeko (da).  
"Similis patri" = Aitari antzeko (zaio).

"Propinquus urbis vel urbi" = uriaren ondoan;  
uriko ondoan uritik urbil.

"Communis mors omnis aetatis, omni aetati" =  
adin guziekiko (guzietako) eriotza. "Tui proprium,  
tibi proprium" = Zure, zeure (duzu); zuri, zeure  
(zaizu).

36. Plenus vini, vino. Ardoz bete; ardotik bete  
naiz. Bigarrena obeki latifiz ez ere.

"Agris copiosus" = lurrez aberatsa; lurretan abe-  
ratsa. "Re cibaria copiosissimum" = Jatekoaz txit  
ugaria. "Inops verbis" = itzez urri; itz-urri. "Inops  
ab amicis" = adiskiderik gabea. "Liber ab omni mu-  
nere" = Lanbide guzitik jare. "Ab odio, amicitia,  
ira atque misericordia vacuus" = Gorrotorik, adis-  
kiderik, aserretorik, errukirik gabea.

37. "Altissima arborum, ex arboribus, inter ar-  
bores" = Zugatzetan, zugatzik, zugatzen artean ga-  
raiena.

"Unus omnium doctissimus" = Guzietan jakin-  
tsuena. "Ante alios acceptissimus" = Guzietan be-  
gikoena.

#### Irugarren maillekoa (Dativus)

38. "Id mihi utile est" = On zait. "Alteri iucun-  
dus" = Besteri atsegifia; besterentzat atsegifia. "Be-

nignus alicui" = Norbaitentzat onbera. "... erga ali-  
quem" = norbaitengana. "Pars pari refertur" =  
berdiña berdiñari datxiko. Euskeraz: "Eulia euliari  
biltzen zaio" edota "eulia euliagana biltzen da".

"Ad vitam necessaria" = Bizitarakoak.

"Mitis in omnes" = Guziekín, guziekiko otzana.

39. "Mihi obuius fuit" = Bidera zitzaidan. "Mihi  
conuenit" = Ba-dagokit.

40. "Natus armis, ad arma" = Gudarako sor-  
tua, aukerakoa.

"Pugnare paratus" = Burrukarako gertu.

#### Laugarren maillekoa. (Accusativus)

41. "Pronus ad iram" = aserrera aier; aserre-  
rako aier; aserretzeko aier.

42. "Decem pedes altus" = Amar oin gora.  
"Murus decem pedes altus" = Amar oin gorako  
arresia; amar oin gora dun arresia.

Dimidio minor. "Hibernia dimidio minor quam  
Britannia est" = Hibernia Britania baño erdi bat  
txikiago da... Britaniaren erditsu da.

#### VI'garren maillekoa. (Ablativus)

43. "Tuis parentibus dignus" = Zure gurasoen  
beteko. "Tali viro contentus eram" = Gizon arekin

pozik nengoan; gizon artaz pozik nengoan. "Illius prudentia fretus" = Aren zuurtasunean etziñik; aren zuurtasunaren babesean.

"Assuetus labore, labori, ad laborem" = Lanean oitua; lanañi atxikia; lanera jarria. Latiñez: "Ad-suetus ad laborem" obekienik.

44. "Parvus corpore" = Gorputzez txikia. "Civitate romanus" = Erriz erromarra.

45. "A te diversus" = **Zugandik** bixiko; zutaz beste (rik). "Sextus a Romulo = Erromul'engandik seigarrena.

#### Alderatzea. (La comparación)

45. "Doctior quam Petrus" = Petiri baño jakintsuago. "Doctior Petro" = Petiri'ren aldean jakintsu; Petiri'ren eretzean jakintsu. "Multitudini gratior quam patribus" = Gurasoeri baño erriari atsegiñago; erri-eder, ez guraso-eder. (Cfr. kanpo-eder).

"Amplius viginti urbes incenduntur" = Ogei urik baño geiagok su artzen dute.

46. "Felicior quam prudentior" = Zoriontsu baño zuurrago. "Doctior est quam putas" = Ik uste baño jakintsuago duk.

"Citius opinione" = Uste baño len (inork).

"Senectus est natura loquacior" = Zarra berez berrizutxo da.

"Validior manuum" = eskuetan bizkorrena; eskurik bizkorrena.

#### ADI-ITZA

##### Laugarren izen-mailla

47. Ukan-aditzak laugarren maillean nai du galde-izena: "Amo Deum" = Maite dut Jainkoa.

48. Latiñez, berein adi-itz ekiñezko edo **activo** ez izanik ere, aintzat jo oi ditue: "Antiquitatem redollet" = Aspaldi-usaia du. "Non vox hominem sonat" = Ez da au giza-mintzoa. "Tuam vicem doleo" = Zure ezaldiak naigabeizen nau. "Vitam duram vivere" = Biziera gogorra bizi. "Curriculum currere" = Ibiltokia ibilli.

##### Bigarren mailla

49. "Vivorum memini" = Biziak gogora ditut; **bizietaz** oroitzen naiz. Latiñez ere egokiago litzake **de vivis**, oroi-aditzak eskatzen dutenez. (Verba recordandi). "Venit mihi in mentem Platonis" = Platon'ena datorkit burura.

50. "Admonui eum periculi, de periculo" = Bere gal-zoria adierazi nion.

51. "Aliquem furti insimulare" = Norbait lapurreta salatzea; noribait lapurreta egozte. "Capitis damnare" = Eriotzera galtzea.

52. "Meae culpa poenitet" = Utsegifiaz urriki dut; damu dut. "Eam vitae pertaesum est" = Bizitzez nazkatu zaio; bizitzeak nazkatu du; bizitzez nazkatu da. "Nos non pudet fateri" = Aitortzeak ez gaitu lotsatzen.

53. "Regis interest" = Erregeari dio. "Ad honorem nostrum interest" = Gure izenari ba-dio. "Mea, tua... interest" = Neri, zuri... ba-digu; ba-zaigu.

54. "Roma romanorum est" = Erroma erromarrarena da. "Iniurias despiciere magni animi est" = Iraitzak aintzat ez artzea biotz aundieri dagokie (biotz aundiena da).

### III'garren maillean

55. "Est mihi liber" = Liburua ba-dut (ba-zait). "Sunt nobis mitis poma" = Sagar umoak ba-ditugu (ba-zaizkigu).

56. "Pauperi vestem dedi" = Bearrari soiñekoa eman diot.

"Minare mortem alicui" = Noribait eriotzez esketzi. "Omnes mihi victoriam gratulantur" = Guziak garaipenaz txaloka naukate (de victoria...).

57. "Grammaticae studeo" = Iskerari nakio. "Deus tibi favet" = Jainkoak lagun zaitu; lagun-tzen **zaitu**, **dizu** baño berez obeki; Jainkoa lagun duzu.

58. "Id, mihi accidit" = ori neri gertatu zait. "Mihi **id accidit**" = ori gertatu zait.

59. "Ad, ante, circum, cum, de, in, inter, ob, post, prae, sub, super" aurretik erauntsita dituen adi-itzez, izena irugarren maillean nai dute, bere laugarreneko ta seigarreneko izanik ere: "Honorem pecuniae antepone" = Izena diruari oboetsi; izena dirua baño naiago izan. Guk **verbo dativo** dalako zait, zaitu, orrekin oinbeste naspilla gabe gauzak esaten ditugu; **dit**, **diot** eta oiekin ere bai: "Vox eum defecit" = Mintzoak utsegin dio. "Vox **eo defecit**" = bear luke.

60. "Sum"etik eratorritako adi-itzak (ab-sum-irugarren mailako izena nai dute: "Quid tibi prodest?" = Zertako zaitu on? "**Defuit officio** (orain ederki, **de officio**)" = Lanbideari uts egin zion.

61. Adi-itz eratorri ok: "Antecedo, antecello, anteeo" = Aurretik ibilli. "Praecedo, praecello, praecurro, praeco" = Aurretik joan. "Attendo" = Erne egon, adi egon. "Illudo, irrideo" Iñaka egin, naiz irugarren naiz laugarren mailako izenarekin elkar-tzen dira: "Mihi vel **me illudit**" = Iñaka ari zait; neri iñaka ari da.

62. Zenbait adi-itzek, irugarren maillako bi izen eska oi ditue: 1) Norbaitekikoa ta 2) Zerbaitekikoa: "Hoc tibi dolori erit" = Zuretzat naigabetako da; zuri naigabe zaizuke. "Hoc ei vitio verito" = Txar-tzat egozten diot (ari). "Amicis auxilio venit" = Adiskideeri lagun datorkie (laguntzat). Euskerak garbi bereizten ditu bi bukaera oiek: 1) -ri; 2) -tzat.

63. Norbaiten naiz zerbaiten onerako naiz gaitzerako egiten dana, irugarren maillean ipiñi oi dute: "Tibi laboras" = Zuretzat ari zera. "Dentes illi cadunt" = ortzak ba-doazkio.

Euskeraz bezela latinez ere iñoiz lenengo ta irugarren mailleko izena bati berari dagokiola artzen da: "Ille tibi Brundusium pergit" = Au Brindis'a doakizu. **Datif éthique** delako au Saraitzu'n gainez dabilte. Zuberoa'n poliki.

#### IV'garren maillean

64. Zenbait adi-itzek laugarren maillako bi izen eska oi ditue: "Pueros grammaticam doceo" = Aurrieri izkera darakuskiet. Ortakoak dira "celo, flagito, oro, posco, postulo, rogo, interrogatio, t. a."

"Doceo" k iñoiz seigarrena ere bai, de aurretik dula: "Me de morte Caesaris docuit" = Kaisarren eriotzaz jabeazi nindun. "Trans" aurre-itza duten adi-itzak laugarren maillako bi izen daroazte: "Copias Rhodanum traduxit" = Osteeri Rodan ibaia igarotzen.

66. **Norabait** dioten adi-itzak (duco) edo zertarabait (hortor), laugarren maillean nai dute izena, ad aurrean dutela, euskerak -ra atzean bezela: "Haec via ad virtutem ducit" = Bide onek on izatera dararama.

Nor-izenik gabeko adi-itzak (attinet, pertinet, spectat = dagokio) berebat elkartzen dira: "Hoc ad me pertinet" = Au neri dagokit.

"Attinet me nihil scribere" (ad me tenet nihil scribere) = Ezer ez idaztea dagokit.

Esan oi ere da: "Loqui ad aliquem" = Noribait itzegin; edota "Loqui cum aliquo" = Norbaitekin itzegin.

"Nihil ad rem" = Ezer ez ortako.

67. Kundegabeko nor-izenak "id, illud, quid, aliquid" eta zerbaitekiko izenlagunak "unum, omnia, cetera, pleraque", galdea zertan baldin ba'da, laugarren maillean ipiñi oi ditue: "Id adiuva me" = Lagun nazazu ortan. "Illud gaudeo" = Ortaz pozten naiz; "unum studere, cetera assentiri" = Bati ekin, besteari baietsi.

"Id genus" = olako. "Magnam partem" = Agiz.

#### VI'garren maillean

68. "Ugaritasuna, urritasuna, gabea" dioten adi-itzak VI-ganen maillean nai dute izena: "Divitiis abundat" = Ondasunez ugari du. "Nulla re caret" = Ezer ez du eskas; ez da ezeren gabean.



Inoiz "egeo, indigeo" k bigarren maillean ere nai dute.

"Opus est" ek nor-izena III'garrenean, zer-izena seigarrenean nai ditu: "Mihi amico opus est" = Neri adiskidea bearreko zait. "Multa tibi opus sunt" = askoren bear zara; asko bearreko zaizkizu. Baita euskeraz bezela ere: "Dux nobis opus est" = Aitzindaria bear dugu.

69. "Zertaz, zertan, nola, zerekin" adierazten duten adi-tzak izena seigarren maillean nai dute: "Piscibus vivere" = Arraiez bizi; arrailetik bizi; arraia janda bizi; arraia janez bizi. "Quid hoc homine facis?" = Gizon ontaz zer egin? "Litteris eruditus" = Eskolan aurrerazi zun. "Omnibus copiis proficiscitur" = Saldo guztiekin doa. "Se castris continuit" = Mendian gelditu zan; mendikoekin gelditu zan. "Standum est promissis" = Aginduari atxiki bear zaio. "Promissis" ori seigarreneko ez baño irugarreneko da, noski. Emen izen-bukaerak asko nasten ditue latitarrak. Gogora dezagun, idazle oien aldian lati-izkerak izen-maila bereiziak galduak zitula. Naspilla ori ez da beraz arritzekoa.

"Lapidibus pluit" = Arri-kazkarra ari du (ari du arri-kazkarrez!). "Fluvius sanguine fluxit" = Ibaiari odola dario (ba dario odollez!).

70. "Pane vescor" = Ogiz unitu (cfr. ogiz ase). "Imperio potiri" = Aginteaz jabetu. "Rerum potiri" ere bai "rebus" ordez = gauzetaz jabetu.

71. "Me libello donavit" = Liburua eman zidan (liburuz jabe egin nindun).

72. "A (ab), e (ex)" = -tik, -dik, -ganik, -gandik.

73. "Nobili loco ortus" = Toki aundian jaioa (in loco ordez). **Locus** agiz erabilli oi dan itza baita, in kendu egin oi zuten. "Castra iniquo loco posuit" = Etzaunta maldarrean jarri zun (ez-lekuan jarri zun).

74. "Pugnare cum hoste" (contra hostem ordez) = Etsaiarekin burrukatu.

V

I

## NOIZ-NOLAEN GALDEKIZUNA

### (Complementos circunstanciales)

75. Non-egona euskeraz bezela in = n. Agiz erabilli oi diran izenekin kendu ere egin oi dute (locus, pars, regio... ). Beste zenbait aldiz izenlaguna mugatzekoa (determinativo) dutenean: "Toto orbe terrarum" = Mundu guzian. "Medio aestu" = Uda-erdian.

"Terra marique" = Itsaso ta legor. "Dextra laevaque" = Ezker eskuin.

76. Latitarrak nongoa norenaz ta nondikoaz nas-tu egin oi zituen (el locativo, el genitivo y el abla-tivo): "Romae" = Erroman; Erromaren, Erromako. "Athenis" = Atenetan, Atenetatik.

77. "Apud patrem cenabam" Aitarenean nintzan apaltzen. "Apud Homerum legimus" = Homer'enean irakurtzen dugu.

78. Nora galdeari zenbait aldiz ad gabe eran-tzuten zioten: "Rus eo" = landara noa. "Domum venio" = Etxera nator. Osterantzean ad'ekin, izena agiz erabillia ez ba zan: "Ad Capuam profectus sum" = Kapua'ra irten nintzan.

79. Norengana, latinez ad au ere: "Ad patrem accedo" = Aitarengana nator.

80. Nondik "a, ab, e, ex"ekin agiz, baña maiz aipatu oi diran erriekin ta izenekin aingabe: "Roma venio" = Erromatik nator.

81. Non barna? "Per"en bidez geienik. "Per Italiam" = Italia'n barna, gaindi, zear. Zenbait al-diz aingabe, seigarren maillean.

## II NONGOA

(aldea, tartea). (El espacio).

82. Laugarren mailako izenez adierazten da: "ducentos passus patet" = berreun urrats zabal da; "tria millia passuum abest" = emendik iru milla urrats daude.

## III NOIZKOA

(noizaldia). (El tiempo).

83. Noiz-izena seigarren maillean ezarri oi da. a) Lagunik gabeko izenak aurretik in daramate: "in bello" = gudan; "in exitu" = azkenean; b); la-gunekiko izenekin in isildu egiten dute, edota bien tartean sartu: "hora tertia" = iruretan; "aestate" = udaran; "nocte" = gabaz; die = egunez; "dominica die" = igandez; "hac in re" = gauza ontan.

"Ante me consulem" = ni konsul izan baiño len; bis in die" = egunean bitan; "tertio quoque die" = erenegun oro; iru egunez bein; "quarto post die quam veni" = ni etorrita laugarren egunean; "sub noctem" = illunabarrean.

84. Noiz ezkerro? "Abhinc tres annos, abhinc tribus annis" = iru urte ontan. (-z gero.) "Ante hos tres annos mortuus est" = iru urte otan illa da.

85. **Noizko?** "Post tres dies resurgam" = iru egun barru piztuko naiz; etziramenean piztuko naiz. (Egun, bihar, etzi, biharamen, etziramen). "Post hos tres dies" = etziramenean; emendik iru egunera. Egun, (ostiral arratsaldea), biharamon (larumbata), etziramon (igande goiza). Ederki dator euskeraz.

"Biduo, triduo" = bi egunetan, iru egunetan.

"Sex diebus" = sei egunetan; "intra sex dies" = id.

"In annum" = urterako, urteko, urtekoz.

#### IV.

##### Zenbat denbora?

86. "Tres annos" = iru urte; iñoiz "per tres annos" = iru urtez.

87. **Noizdanik?** (v. n. 84). "Tertium annum regnat" = irugarren urtea du errege; "ab urbe condita" = uria eraiki zanetik; Erroma egin zanetik; "ex eo tempore" = ordudanik. "A puero" = aurdanik. "Triginta annos natus erat" = ogei ta amar urteko zan.

88. **Noizarte? Noizdaño?** "Ad finem" = azken-eraño; "usque ad extremum vitae diem" = azken-egunera arte; "sermonem in multam noctem produximus" = berriketa gau-azkenera arte luzatu dugu.

#### V

##### Zeren bidez? Nola?

89. "Gladio ferire" = ezpatez zauritu; "magnitudine vincere" = aundiz garaitu. Emen gaizki dakar Desmarquets'ek "lupum auribus teneo" = otsoa belarrietatik daukat. Ez da zeren bidez, nola, **nondik** baño. "Pedibus, manibus" = oiñez, eskuz.

"Per en bidez ere bai". "Per exploratores certior factus est" = barrendarietaz jabetu zan; "per vim" = indarrez.

Iñoiz lagun-itza, **cum**, euskeraz **-kin** bezela darabilte: "Cum febris venit" = sukarrez etorri zan (sukarreakin); "cum gaudio" = pozez, (pozarekin).

Zergatikoa ere (causa motivo), aldeaz ontara saildu dezakegu: "fame interire" = gosez il (goseak il); "metu fugere" = bildurrez igesegin; "mea sententia" = nere ustez; "tua opera" = zure bidez; "tuo beneficio" = zuri esker. "Prae maerore" = nai-gabez.

#### VI

##### Zergatikoa.

90. "Propter te doleo" = zuregatik nago ilun.

**Bateik bestera aldea. (Diferencia).**

91. Batak besteari kentzen dion aldea seigarren mailarekin adierazi oi dute: "me capite superat" = buruz gaintzen nau; "Hibernia dimidio minor est quam Britannia" = Hibernia Britania baño erdi bat (erdi batez) txikiago da. **Zenbat.** —Erdibat; zenbatez? —Erdi **batez.**

"Non multo secus" = gutiz bestera.

**Balioa: zenbat? zenbatean?**

Agiz seigarren maillean izena eskatzen du: "Hic liber viginti assibus constat" = liburu onek ogei libera balio ditu.

Baita bigarrenean ere: "mox pluris valebit" = las-ter geiago balioko du; "te magni facit" = aundizat zauzka.

"Ego tanti poenitere non emo" = damu ukaitea (izatea) ez dut oinbestean erosiko.

**Gaia.**

"Vas ex auro seu aureum" = urrezko ontzia; urre-ontzia; "Contio ex nostris constabat" = bilera gureek osatzen zuten. (gureetaz osatzen zan).

**ESANKIZUNEN UZTARPIDEA**

(esankizunek esankizunekin)

**ADI-ITZAREN JOKABIDEAK**

beren esku diran esankizunetan

(Modos de la conjugación en las oraciones indep.)

JOKABIDE SOILA = **Modo simple** (indicativo).

**Indicativo** 'ri soilla esango diot, eta **subjuntivo** 'ri eratzikia, izan ere oni eratziki egiten baitzaizkio zenbait zati, esaterako: naiz (ind.) naizala, naizanean, naizelako, t.a. Erderaz **modo derivado** ere bai **subjuntivo** 'ri.

94. Gertakizuna **ari** dala edota **oi** dala adierazteko, jokabide soillean jokutzen dute adi-itza: "Loquor" = mintzo naiz; izketan **ari** naiz. Euskeraz bezela latíñez ere "mintzatzen naiz, mintza oi naiz, jaten dut, jan oi dut" eta abar, oitura adierazten dute.

## Agintzeko jokabidea

(Modo imperativo)

95. "Puer, abige muscas" = aiza euliak, mutil! Berez ez du noizaldi jakifnik aipatzen, naiz laister, naiz geroxeago, baña beti geroaldia dio: "misero ne insultaveris" = ez iraiñik egin gaisoari.

Latíñez beste erara: "noli dicere" = ez esan.

Irugarren norr-izenari dagozkiela, jokabide soillean ari dira sarri: "Parentibus pueri oboediant" = aurrek gurasoen esaneko **bitez** (ditezela). Euskeraz ere bietara.

"Cura ut, cave ut, fac ut", euskeraz "begira, beha, ots" esan oi dugu: "cave cadas, vide ne cadas" = begira erori; cave credas" = begira siñetsi. Beste zenbait aldiz guk euskeraz mugagabeko jokabidean: "fac ut valeas" = ongi **bizi**.

## Jokabide eratzikia.

96. Agintzeko jokabidean aditzaera eratzikiak ere erabiltzen ditute: "Hoc Deus avertat" = Jainkoak ez beza, (ez dezala)!

"Ultinam, si"; euskeraz **ba, al**: "Utinam venias" = etorri **ba** zendil; etorriko **al** zera.

"O si adesset" = emen **ba** 'lego!

## Mugagabea

(El infinitivo e indefinido).

97. Jokabide soilla ordezk mugagabea ere erabilli oi dute gertakizunen bat jalkitzeko: "Catilina mirari, surgere" = Katilina, arritu, jeiki; "mene incoepo desistere?" = nik asia utzi?

## NOIZALDIAK

(Los tiempos).

98. Orainaldiak (el tiempo presente) zer dio? — Izketan ari-ala gertatzen dana. Ez da sosteko unea, bitartea baño: ba-nator, ari naiz.

Zenbait aldiz oitura ere adierazten du, a.b. "jaten dut", jan oi dut". "Audaces fortuna iuvat" = zoriak ausarta laguntzen du (Euskeraz esan, "lot-sagabearentzat mundua").

Zenbait aldiz lenaldia (pasado) ere bai: "disputatur in consilio: plerique censebant" = batzarreran ari dira: geienek... uste zuten.

99. Lenaldi bukagabeak (el pasado imperfecto o inconcluido) igarotako lenaldiarekin adierazten du: "Quum Christus natus est, Augustus imperabat" = Kristo sortu zanean, August zan agintari.

Orainaldiak bezela baita oitura ere: "Carthagine quotannis bini reges creabantur" = Kartago'n urtero bi errege autu oi ziran.

Latiñez idazleak eskutitzetan orainaldi ordezen lenaldia derabilte, karta jasotzen dunarentzat lenaldia baita: "Haec hora nona scribebam" = bederatzietan ari nintzan au idazten.

"Cum tibi scribebam" = idazten ari nintzazula; idazten nizularik.

100. Lenaldi bukatuak gertatua adierazten du: "Fuit Ilion" = izan zan Ilion. Inoiz grekoen **aoristos** ere bai: "quod ab initio fuit— annuntiamus vobis" = lendanik ba-zana iragartzen dizuegu. (Orain ere bai baita).

101. **Lenagokoa** (aurretik igaroa, plusquam perfectum) beste zerbaiten aurretik gertatua adierazten du: "ubi vixerat sepultus est" = bizi **izan zan** tokian eortzi **zuten**.

102. Geroko soilak (el futuro absoluto) etortzeko dana dio: "moriatur" = ilgo da.

103. **Aurreko gerokoa** (futurum perfectum) beste geroko bat baño len gertatzen dana da: "Cum tu senex fueris ego mortuus ero" = zu zartzeko rako ni ila **naiteke**.

**Aditzaren Jokabideak mendeko diran esankizutenan.**

(En las orac. subord.)

104. Nai izatea, eskatzea, agintzea, alegitea, eragitea, opa izatea dioten adi-itzak, baiezko diranean, **ut**'ekin, ezezko diranean **ne**'rekin lotzen ditute: "ut venias iubet" = etortzeko dio; "labora ne fame pereas" = lan egizu goseak il ez **zaitzan**.

Alderatzeko esankizunetan (en las comparativas) **ut** ordezen **quo** darabilte: "otiare quo melius labores" = atsedean, lan obeki egiteko; (obeki egin dezazun).

Latiñez **ad**'en bidez ere bai = tzeko. "Gratia" ta "causa" gerundioekin ere bai: "Ita sane; sed disputandi gratia contrarium affirmo" = ala da noski baña eleta orde bestera diot.

105. "Fit, accidit, restat, sequitur, oportet, placet, licet, mos est, eta norrizenik ez duten olako adi-itzak **ut** nai dute; euskeraz —**tea**, —**izea**: "Ei contigit **ut** te videret" = zu ikustea gerta zitzaion: "rectum est, verum est, mirum est" eta olakoetan ere bai: "rectum est ut bonos boni non lacessant" = onak ona ez nekaraztea bidezko da.

"Licet, oportet, necesse est" ekin **ut** isildu egin oi da".

106. "Is, tantus, talis, eiusmodi, tam, tantum, sic, ita, adeo" ta olako itzek **ut** nai dute gauzak nabariarazteko: "Tam atra nox erat ut tremerem" = ikaratzeko **añako** gau beltza nun; "tam magna vis est conscientiae, ut innocentes non timeant": barren onak, gaiztagabea ez ikaratzeko **añako** in-darra ba du: "tantum est mihi otii ut legam" = irakurtzeko **aña** asti ba-dut.

107. Alderatzeko "ut, ita", en buruz buru **sic** dago: "ut sementem feceris ita metes" = erein bezela bilduko duzu; zer erein, ua bildu.

"Ut aiunt" = diotenez; diotena; dioten bezela.  
"Ut timet!" = Zer bildurra!

Azkenik **ut** onek jokabide soilleko adi-itzeekin noizaldia adierazten du: "Ut veni" = etorri nintzanean.

108. **Ne** ta **quominus, ut** orde darabiltzate ukatzeko esankizunean: "Quid obstat **quominus** edota **quin** sis beatus?" = zerk eragozten dizu zoriontsu izatea? "Non potuerunt contineri milites **quin** irrumperent" = ezin geldiarazi gudariak erasotzeke.

"Impedio, recuso, prohibeo, recuso" **ut** orde adi-itz mugagabea darabilte.

"Quin" **gabe** 'ren bidez itzuli dezakegu: "Non possum quin rideam" = ezin nagoke irri egin gabe; "nullum diem intermisi quin scriberem" = egunik ez dut utsegin idatzi **gabe**.

"Non possum non facere" = ezin dut ez egin; egin gabe ezin nagoke.

109. "Timeo ne; timeo ne non" = timeo ut...  
Españeraz **ne** = no sea que; **ne non** = no sea que no.

"Timeo ne hostis veniat" = etsaia etor-bildur naiz; "Timeo ne non (ut) mater veniat" = ama ez etor-bildur naiz. (etsaia etorri dedin, ama etorri ez dedin). Etortzeko ere bai, baña bitara ar diteke: "ama etortzeko" ta "amaren etortzeko" (BN, L, Z).

"Timeo ut mater veniat euskeraz bestera ere esan dezakegu: "amaren etortzea bildur egiten dut" (etortzea nai bai nuke).

110. Adi-itzaren ondoreko **quod** euskeraz —**tea** 'ren eta —**na** 'ren bidez esazu: "gaudeo quod vales" = zu onik egoteak poztan nau; onik egoteaz poztan nauzu; zu onik egonak poztan nau; onik zaudenak poztan nau.

111. Baldin-itza "si, nisi, sive". **Jokabide soillean** "si" onek agiz gertaera dio; eratzikian berriz baldiñezkoa: "si vis pacem, para bellum" = pakea nai ba 'duzu guda gertu ezazu (emen alare latifnez baldiñezkoa da berez, "si velis"); "si hoc dixisti erravisti" = au esan ba 'duzu, utsegin duzu (au esan duzunean utsegin duzu); "si hunc librum leges, laetabor" = liburu au irakurr ba 'dezazu, poztuko naiz (irakurriko ba'duzu ez ongi euskeraz).

"Perbelle feceris si ad nos veneris" = nere-gana etorri ba zendi, ederki egiña zenuke. Latíñez bi noizaldi egin oi ditue "fuero, fueris, fuerit" eta fuerim, fueris fuerit"; baita "fecero" ta "fecerim" feceris, fecerit; baña batera jo detzakegu: "etor ba zendi, egin zenezake".

"Siquidem" = **bait**—. "Antiquum est genus poetarum, siquidem Homerus ante Roman conditam fuit" = Olerkari-enda aspaldikoa da, Homer Erroma eraiki baño lenagokoa **baitzan**.

"Sive... sive... = naiz... naiz... Sive quid habes sive nihil habes" = zerbait ukan naiz ez ukan; zerbait duzun, naiz ez duzun; zerbait duzula, naiz ez duzula.

"Nisi" = ez ba'... "Nisi fallor" = Oker ez ba nago.

112. **Jokabide eratzikian**. "Si a corona relictus sim non queam dicere" = nere mordoxkak uzten ba 'nau, ezin mintza naiteke; (uzten naularik).

"Si veneris" = etorria ba'zendi; "id si possem facerem" = al ba 'nu egin nezake.

"Si id scivissem" = ba 'nekiken (jakin ukan ba 'nu).

113. "Quasi" = **bai-n**: "Labores quasi tua res agatur" = egizu lan zurea **bailitzan**.

114. "Etsi" = ba... ere, —ik ere, ta ere, ...arren: "Etsi vereor" = bildur ba 'naiz **ere**; "etsi velis" = nai **ba** 'zenu **ere**; bildur izanik ere, nai izanik ere, naita ere; nai izan **arren**.

115. "Quia, quoniam" = —lako, la-ta, bait—, —z gero: "Quia mihi amicus es, libenter ad te scribo" = adiskide zakidalako, pozik idazten dizut; adiskide zaitudalako, pozik idazten dizut; "quoniam tu ita vis, proficiscar" = nai duzunez **gero**, ba-noake; nai **baitzu**...

116. "Quum, quando" = —la, —nean, —tean, —ta, ...ondoan, ta gero: "Qui non defendit iniuriam quum potest, iniuste facit" = al dula bidegabea galarazi ez dezana, oker arida; "quum Caesar in Galliam venit" = Kaisar Galia 'ra **etortzean**; "quum id audivisset" = ori entzunda, **entzundakoan**, **entzunda gero** (au españeraz **después de...**); "quum rex in castris esset, perfuga ad eum venit" = errege mendian zegola, igesegin bat etorri zitzaion; "quae quum ita sint" = Oiek ola ta; oiek ola **dirala** "quando esurio" = gose **naizanean** (larik).

117. "Antequam, priusquam" = ...baño len, —terako: "Antequam dicere instituo" = mintzatzea erabakitzerako. "antequam dicam" = esan baño len.

118. "Potius" = baño, baño len, orde, bearrean, gabean: "Haec suasi potius quam iniunxi" = agindu orde adierazi egin nion; (agindu gabean, agindu bearrean); "depugna potius quam servias" = egin burruka, mendeko gerta baño len.



119. "Dum, donec, quoad" = arte, bitartean, bait—, —no, —ala: "Dum haec geruntur" = auek gerta-ala (gerta bitartean); "timui donec veni" = bildur nintzan etorri arte; "oderint dum metuunt" = bildurrez gorrota nazatela; "dum civitas erit" = erririk deño.

120. "Qui" norr-ordekoa, ut ordez: bait—, —teko, —tera, —ten: "O fortunate adolescens qui inveneris" = zori oneko gaztea, arkitu baituzu... "Veni qui viderem" = ikusteko etorri naiz (ikustera, ikusten B).

121. "Quippe qui, utpote qui" = bait—: "Caesar, quippe qui sciret hostium iter" = Kaisar'ek et-saien bidea baitzekian.

122. "Quod" = —n, —nez, —nik, —la: "Dic aliquid quod ad rem pertineat" = egoki dan zerbait esazu; "nihil quod sciam" = ezer ez, dakidanez, (dakidala); "omnium quos audierim disertissimus" = entzun dudarik itz-ederrena.

## VIII

### Jokabide eratxikia naiz mugagabea zear-galdeetan

(en las proposiciones indirectas).

123. Zuzen-galdea nori berari egiten zaio: **non da?** Zear-galdea adi-itiz bati datxikion galdea da: esazu **non dan**.

124. Zearr-esana, berebat, adi-itiz bati datxikio ta zearr-galdearen erantzuna bezela da, esaterako: "bidezko zala esan zun. Latiñezko infinitum affirmativum, ...ese, ...dicere, euskeraz jokabide eratxikian eman oi ditugu: "(dicens) quid vereatur" = zeren bildur dan esanez: "ius esse belli" = guda bidezko dala.

125. Batek omen diona, quod'en bidez eman oi zuten: "Socrates accusatus est quod iuventutem corrumperet" = gaztedia okertzen zula-ta Sokrate salatu egin zuten; omnes libros quos frater tuus reliquisset, mihi donaveras" = zure anaiak utzi omen liburu guziak eman zenizkidan; "non quod irascar" = ez aserre naizelako.

126. Mugagabearen esankizuna. Mugagabea adi-itzak adjabe-ordea egin dezake: "mentiri turpe est" = gezurr esatea itsusi da; "mihi vivere cogitare est" = nik bizitzea pentsatzea dut.

127. "Vincere scis, Hannibal; victoria uti nescis" = garaitzen ba-dakik, Anibal; garaipenaz baliatzen ez.

128. "Videre volo" = ikusi nai dut; "primus esse volo" = aurrena izan nai dut.

129. Mugagabea esankizuna (aitortzekoa) = proposición de infinitivo. Adjabea izen bakarra du-

larik, laugarren maillean nai du; adikizuna, gerta ba ledi ere, bai: "Credit **se** esse **beatum**" = zori oneko **dala** derizkio; "manifestum est **vitam** esse **brevem**" = bizia laburra **dala** agerikoa da.

130. Zenbait aldiz latifñez, mugagabeko esankizun soilla bitara esan oi zuten: "Nuntiatum **Caesar** esse **venturus**" eta "nuntiatum **Caesarem** esse **venturum**" = Kaisar etortzekoa **dala** diote. (Kaisar etortzekoa omen).

131. "Mihi videtur me videre "ordez" videor mihi videre" esan zuten = ustez badakust; ikusten ote dudan dirudit.

## IX

### Noizaldien elkarr-egokia

(Consecutio temporum).

132. "Scio quid agas" = ba'dakit zer ari **zeran** (oraiñaldia); "sciebam quid ageres" = ba'nekin zer ari **ziñan**; "scio quid egeris" = ba'dakit zer egin duzun (lenaldi bukatua); "scio quid acturus sis" = ba'dakit zer egitekoa zeran (geroaldia).

"Quod optimum esset fieri debere arbitrabatur" = onena **zana** egin bear **zala** uste zun.

## Mugagabea

133. "Credo te legere" = irakurrizten duzula nago; "credo te lectum esse" = irakurri zenula nago (**duzula** ere bai); "credo te lectum fuisse" = irakurriko zenula nago.

## X

**Adi-izena** (nombre verbal).

(Beregan artzen ditu **supinum**, **gerundium**,

**participium**).

134. Latitarrak etzuten izen biurtzen ahal adiz mugagabea guk bezela, ta orrek erabilli ditu arat-onat izen billa. Guzien erroa **adi-izen** ori da bada, ta ori bere mailletan ezarri ezkeru, iru sail oriek batera detzakegu. **To esse** (etzuten), **tu esse** = essendi (etzuten), **to amare** = amando (etzuten), eta abar. Guk izatea, izatearen, izateko, izatera, izaten, izatearekin... izana, izanaren, izaneko... buka-maila osoetan ipintzen dugu.

"Supinum" = ortzaz gora, etzanda, alperkerian... latinzaleetan ez dut ongi adierazia ikusi. Euskeraz **adi-izenaren** bukaera bat da, geienez, —tera, —teko: "Lusum venio" = jolasera nator; "pacem petitem" = pakea eskatzera (pake-eske).

"Mirabil visu" = ikusteko arrigarria; "nefas est dictu senectutem miseram esse" = zartzarua doakabea dala ez da esatekoa.

135. "Gerundium" **egiten ari dana** da; zenbait aldiz **egoten dagona** ere bai. Au ere adi-izenaren mailletan —**ten**, —**teko**, —**tera**'rekin jarri oi da: "Tempus legendi" = irakurtzeko astia (irakurr-astia); "tempus otiandi" = atsedeteko astia.

Batzutan adi-izena soil erabilii oi dute mailletara gabe: "**venire oblitus sum**" = **tau** venire oblitus sum = etortzez aztu naiz (etortzea aztu zait).

—**endo** (dativ.): "Agro colendo praesse" = lurra lantzen buruzagi; lur-lanean buruzagi; "solvendo non erat" = etzegoan ordaintzeko.

Ad, ante, inter (—um, —am, —um) = —rako, —ean, —gabe, —baño len.

"Ad iram promptus" = aserrerako gertu; "inter bibendum" = edan bitartean; "ante cubandum" = ogera baño len; ohera gabe.

—endo (modale): "Tempus legendo consumit" = astia irakurriz daroa.

"in ...—endo" (concret.): "Acerbitas in iubendo vitanda est" = agintzean zorrozatasuna itzuri bear da.

"Non sunt comparanda" = ez dira alderatzekoak; "vix credendum" = osta siñestekoa.

"Participium" artukizun duna esan nai du, ots, badaula artukizun adi-itzarekin ta izen-lagunarekin, bien antza baitu: "Participium praesens" bitara euskeraz izan-aditza edo ukan-aditza lagun ditunez: "amans" = maite duna, dunaren, "vivens" = bizi dana, danaren; "amatus" = maitatua, —rena, &; "amaturus" = maitatzekoa (dut, duzu, &); "amandus" = maitatzekoa (naiz, zara, &).

"Facile iniurias perferens" = iraiñak errez deramazkina; "iniuste facta, facete dicta" = oker egiñak, atsegin esanak.

"Indignantis clamor" = aserre danaren oiua; "bene facti munus" = ondo egiñaren saria.

"Eunti mihi Antium" = Anti'ra nindoala (nindoanari); "fausta nuntianti facile credam" = berri on dakarrenari errez siñes neklo; "iam profecturus sum" = irteteko nago; "eo miseriarum venturus eram" = zoritxar artara etortzekoa nintzan.

### Bere esku dan 6'garren maillokoa

(Ablativus absolutus).

"Ariovistus, Caesaris adventu cognito, legatos misit" = Ariovist'ek, Kaisar zetorrela jakinki, ordekoak bialdu zitun; "me scribente venit tuus puer" = ni idazten ta zure morroia iristen; "milites, relicto duce, fugerunt" = gudariak, buruzagia utzita alde egin zuten.

## XI

### Norr-izenak nola erabilii

139. Lenengo maillekoak (v. n. 12). Bigarren maillokoak (askorenean). Nostrum, nostri: "Quis vestrum?" = zuetan nork?; "memento nostri" = oroi zaite gutaz.

(Batenean): "Tua mei memoria" = nitaz zure oroipena; zure nitazko oroipena; "mei unius labore" = nere bakarraren lanaz; nere lanaz bakarraz; "tuum studium adolescentis" = zure gaztedaniko griña; gazte ziñaneko griña.

"Inter se" = elkar

"Fratres inter se amant" = anaiak elkar maite dute; elkar maite daukete.

"Me ipse, sibi ipse" = nerau, zerau.

"Ipse laetor" = nerau pozten naiz; "necem sibi ipse conscivit" = bere burua il zun; "natali ipso die" = sortegunean berean; "valvae se ipsae aperuerunt" = atek berenez zabaldu ziran.

"Iisdem libris utor quibus tu" = zure liburuak berak derabiltzat; "non es idem erga me ac fuis-ti" = etzaitut zindudana.

140. "Quem timent fugiunt" = bildur diotenari iges dagiote; "quam quisque norit artem in hac se exerceat" = bakoitzak, -dakin lanbideari bekio; "quem ut agnovi" = ezagutu nuneke.

"Solum bonum est quo qui potitur beatus est" = zoriontsu egiten dun ona bakarra da ona; "nemo fuit unde ius obtineremus (a quo ius...) = ez genu nondik zuzenbidea iritxi, (norengandik orde); "maior sum quam cui possit fortuna nocere" = zoriak kalte dagidaken baño aundiagoa naiz; "quis quem fraudavit?" = nork nor atzipetu du?

144. "Quod cuique obtigit id quisque teneat" = bakoitzak, dagokiona atxiki beza; "interest quis quosque habeat praeceptores" = nork nortzu ditun maisu, begiratzekoa da; "ut quisque virtutibus ornatur, ita colendus est" = ontasunez bat jantziago ta itzalgarriago; "aliud sentit, aliud loquitur" = bat gogoan, bestea agoan.

## XII

Izen jokugabeak. (Palabras no flexivas).

"Et, ac, atque" = ta, eta; "aut" = edota, edo; "vel" = naiz; (zenbait aldiz **vel** onek **ere** dio): **vel** sex menses expectabo" = sei illabete ere ba'nitxedo.

146. "At, ast" = ostera; "vero, autem" = aldiz, berriz; "sed, verum" = ordea, baño; "tamen" = alare "Ceteri assentiebatur, at Cato... = besteak baietz zioten, Katon'ek ostera...; "te non damnabo, sed absolvam" = galdu ordeaz askatu egingo zaitut.

"At" iñoiz **bederen, beintzat** ordeaz: "si non occisus, at vulneratus" = illa ez ba, zauritua beintzat.

"Nam, enim" = bait—, quippe, nimirum" = alegia; "scilicet, videlicet" = ots, arean: "tibi omnes gratias agimus, nam omnes idem sentimus" = guziok esker dizugu, guziak iritzi bera baitute.

"Regnare non possum, quippe vetor fatis" = ezin ni errege izan, alabearrak galarazten **baiti**.

148. "Ergo, igitur, proinde" = ortaz, beraz, geroz; "itaque, ideo, propterea, quamobrem, quapropter, quocirca" = orregatik, beragatik, ori dala-ta.

149. "Non, haud, ne" = ez; "neque" = ez ta, ez ta ere; "te ne vidi quidem" = etzaitut ikusi ere; "ne ego quidem te vidi" = nik ere ez aut ikusi.

"Nedum" = gabean: "Id civem romanum non decet, nedum amico dignum sit" = adiskideari ego-ki izan gabean, ori ez dagokio erromarrari; adiskideari ez ezen erromarari ere ez dagokio ori.

150. "Non possum non dicere" = ezin ez esan; esan gabe ezin egon; "nonnihil vidi" = zerbait ikusi dut (ezer ikusi gabe ez nago); "nonnunquam non cantat" = beti kantan ari da; iñoiz ez dago kanta gabe. Latiñez bi ez'ek bai'a dakarte.

151. "Num, ne" = —a (—ea, —ia), —al...; "Vidistine Romam?" = Erroma ikusi duzuaia?; "num dormis?" = lo zirea? Ikusi al duzu? Lo al zaude?

152. "An, ne" = ala; "Pacemne an bellum vultis?" = pakea ala guda nai duzute?  
**Aditzondoak.** (Adverbios). Aditz-alboko, aditz-lagun.


153. "En, ecce" = ona, orra, ara. Latiñez le-nengo naiz laugarren maillekoarekin uztartu oi dira: "En lupus" = ona otsoa; orr otsoa.

"Instar" = "antzer" = "Turbinis instar" = zurrunbillo antzera (—aren antzera).

Ataun'go Bonipazio  
Aita, Olabide, Orixe  
ta Oartzabal'dar  
Martin apaiza.



(Toulouse'ko Buruñur-  
dunen Lekaide-etxean,  
1938-garren urtean)



Orixe Arantza-  
zu'ko mendietan  
1936-ko jorriailla-  
ren 10-garrenean

### Zenbait aurre-itz.

154. "Apud patrem" = aitarenean; "adversus hostes" = etsaien buruzki (Orex); etsaien aurka; Britania contra Galliam sita est" = Britania Gallia'ren bekoz beko dago (begiz begi, aurrez aurre); "erga omnes" = guziengana; "pone dorsum" = bizkar-atzean; "cis, citra fluvium" = ibaiez emendik, (huneindi); "trans, ultra Alpes" = Alpeetaz andik, (haindi). Cfr. **Urezandi** (Barrio de Munguía). "Ob oculos" = begi-aurrean; "iuxta focum" = sutondoan; "secundum ripam" = ugaldearen ertzean; ugaldeari dagokala (siguiendo la ribera); "praeter te" = zu ezik; "penes me" = nere gain, nere baitan.

"Prae 1) = aurretik; "pre se armentum agere" = artaldea aurretik eraman; "prae" 2) = aldean: ceteros prae se agrestes putare" = bere aldean besterik basati uste izatea; "prae" 3) = —z: "prae lacrimis loqui non posse" = negarrez ezin mintza.

"Pro" = 1) alde: "pro me" = nere alde; 2) ariora, arabera, giñoan: "Pro viribus" = indarr-ariora (AN); indarraren arabera (BN, L, Z); indarraren giñoan (B); 3) —tzat; "pro mortuo habere" = ildakotzat artu.

"Super" = 1) gainean: "super iuvenum stabat leo" = bigaren gainean zegoen leoia; 2) —az: "Hac super re scribam" = ontaz idatziko dut.

"Sub" = 1) azpian, —pean; 2) —isu: "sub ipsa protectione" irtetekoan; "sub idem tempus" = orduantsu.

### Hasperenak. (Interjecciones).

155. "Me miserum" = errukarria nil "O ego laevus!" = doakabea nil "O me caecum" = itsua nil "Proh dolor!" = au lana! "Proh Deus!" = Jaungoikoa, Jaungoiko aundia! (AN), Jaungoiko maitea (c...). "Hei mihi!" = Ai ene!

### XIII

#### Zenbait esaera.

156. "Summa arbor, ima arbor" = zugaz-goiena; zugaz-barrena; "summa aqua, ima aqua" = ur goiena (ur-gaina, ur-azala), ur-barrena. "Ur-goiena ur-barrena — Urteberri egun ona" (Canción AN); "imum mare" = itsas-zingoa; "in medio foro" = zei-erdian; "extremi digiti" = beaz-muturrak; "summa hieme" = negu-erdian, neguaren biotzean; "naiz iduki senarra — larru gorrian — negu-erdian... ara zer andre diran erdal-errian". "Prima luce" = len-argiz; "prima nocte" = gaulenetik; "sub noctem" = ilunabarrean.

157. "De te agitur" = zutaz ari dira.  
"Iam iam profecturus sum" = irtetzear nago, irteteko nago.  
"In eo erat ut caderet" = erortzear zegon.  
"Paulum abfuit quin caderet" = gutxiz ez zan erori; erori zan urbil; ia erori zan; (gutxik egin zun ez erortzea).

"Haud multum abest" = gutxik egiten du.  
"Venari mihi non vacat" = eizerako batarik ez dut.

"Aegre id impetavit" = nekez iritxi zun; doi-doi iritxi zun.

"Id me impulit ut crederem" = orrek siñetsarazi zidan.

"Pontem fieri iubet" = zubia egiñarazi zun.

"Pontem faciendum curat" = zubia egiñarazi zun. (Dificultad de expresión del factitivo).

"Aegrum simulare" = gaiso-keiñu egin.

"Actum est de me" = nereak egin du.

"Doctus habetur" = jakintsu daukate. (Osabak maite nauka).

"Utinam veniat!" = etorri ba-ledi!

"Modo advenit" = etortzea egin du. Oraintxe etorri da.

"Ut verum dicam" = egia esan.

"Ut opinor" = nere ustez; ene aburuz.

"Ut fertur" = omen; diotenez.

"In universum aestimanti" = erabat jota; erabat artuta.

"A capite usque ad calcem" = burutik beatzera.

"Vix me respicit, nedum amet" = maita gabea osta begiratzen dit.

"Seu maneant seu proficiscantur" = naiz gelditu naiz joan.

"Sive sic est sive alio modo" = ola naiz bestela.

## IZTEGIA

Adi-itza	verbo
Adikizun	objeto del verbo
Aditzondo	adverbio
Adi-izen	nombre verbal
Agintzeko jokabide	modo imperativo
Aidego	concordancia
Alboko lagun	adverbio
Alderatze	comparación
Aldiz aurrera	cronológicamente
Askoren, zenbaiten (einea)	número plural
Aurre-itz	preposición
Aurreko gerokoa	futuro imperfecto
Biotz-eragin	afecto
Bukaera	caso
Bukagabe	imperfecto
Bukatua	perfecto
Burutakizun	idea
Elkar-egokia	consecución (de tiempos)
Elkar-itz	conjunción
Elkar-lagun	antecedente (del relativo)
Elkartzeko	relativo (pronombre)
Emakunde	femenino (género)
Erauntxiko izen	nombre apuesto
Esankizun	proposición
Galdekizun	objeto inquirido
Geroko soilla	futuro absoluto

Gertakizun	hecho
Gizakunde	masculino
Hasperen	interjección
Izen-ixiltze	elipsis
Izenkunde	género (gramatical)
Jokabide eratzikia	modo subjuntivo
Jokabide soilla	modo simple
Joskera (elkar-urrena)	sintaxis
Kakotxa	coma
Kundegabeko	neutro (género)
Lenagokoa	pluscuamperfecto
Lenaldia	pasado
Mendeko esankizun	oración subordinada
Mintzaera	acento
Mintzaki	tono
Noizaldiak	los tiempos
Noizkoa	tiempo (gramatical)
Noiz-nola	circunstancia
Nor-orde	pronombre
Uztarpide	enlace
Zear-galde	proposición indirecta